

Derioko Udalaren 387-2023 Dekretuaren laburpena, 2023ko irailaren 26koa, atzerrian hizkuntzak ikasteko eta musika eta dantza ikasketak egiteko laguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia onartzen duena.

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak:

Laguntza horietarako Ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak bakarrik izan daitezke onuradunak.

Bigarrena. Helburua:

Deialdi honen helburua atzerriko hizkuntza-ikastaroetan eta musika- eta dantza-ikasketetan parte hartzeagatik sortutako gastuak diruz laguntzea da.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko urriaren 16an argitaratutako oinarriak.

https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/10/16/II-3308_eus.pdf

Laugarrena. Zenbatekoa:

Ekitaldi bakoitzerako laguntzen zuzkidura ekonomikoa urtero onartuko da, udal-aurrekontuarekin batera, eta deialdian zehaztuko da, aurrekontu-banakapena adierazita. Diru-laguntzaren zenbatekoa benetan justifikatutako gastuaren % 50 izango da, gehienez ere 500 €pertsonako, aurrekontu-partida bakoitzean esleitutako kredituaren mugaraino. Eskaera gehiegi egoteagatik aurrekontu-kreditua ez bada nahikoa % 50 hori estaltzeko, onuradun bakoitzak benetan justifikatutako gastuaren ehuneko bera jasotzeko moduan banatuko da kreditu hori. Emandako diru-laguntzak kontabilizatu ondoren, dagokion aurrekontu-aplikazioan kreditu-soberakin bat salbuesten bada eta bestean hori nahikoa ez bada, eta kontuan hartuta bi aplikazioak lotura-poltsa beraren barruan daudela, soberakin hori erabili ahal izango da beste jarduera diruz laguntzeko, betiere esleitutako zenbatekoaren mugarekin.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31a artekoa izango da.

Derio, 2023ko irailaren 26a

Alkatea, Esther Apraiz